

Koko jantziak PRESTATZEN





Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Pelloc atea ireki nahi du baina ezin.

Orduan bere lagunak zera esan dio:

- Ekarki giltza, nik irekiko dut.
- Bai, tori –dio Pelloc.
- Baina Pello, hau supositoria da.
- Orduan, non sartu dut giltza?

- Zer dio E.T. estralurtarrak limoia jaterakoan?

- Mi kaaaaaaatza.

- Zer esaten dio paperak ogitarteko bati?

- Irteeran itxaroten dizut.

Ilargiak esaten dio Eguzkiari:

- Hain handia eta ez dizute gauez ateratzen uzten.

Zer egiten dute bi euskaldunek

Madril estaltzen duen hodei batean?

Two Vascos.

Aita-semeak kotxe batean doaz.

Semeak esaten dio bat-batean aitari:

- Aita, burua leihotik atera dezaket?
- Bai, baina kontuz ibili...
- Aita begiratu... barandandandandilla bat.

Elefante batek zera galdetzen dio gamelu bati:

- Zergatik dituzu titiak hor goian?
- Begira nork galdetzen duen... zakila aurpegian duen batek!

- Zenbat hezur daukazu gorputzean? galdetzen du irakasleak.

- 208 jauna –erantzun du irakasleak.

- Burugogorra!!!, ez al nizan esan atzo 207 hezur baino ez ditugula?

- Bai, baina gaur oliba-hezur bat irentsi dut.

Zer jaten dute ardiek belarraz aparte?

Kongitotxoak.

Shin Chanek galdetzen dio aitari:

- Nola janzen dira galtzontziloak?
- Ba... marroia atzean eta horia aurrean.



LA SALLE ikastetxeko ikasleek gogotsu ekin diogu berriz ere ikasturteari. Eta Gabonetan jandako guztia apurtxo bat gainerik kentzeko, zer hobeto kirol pixkat egitea baino? 3. eta 4. mailetako ikasleak igeriketa ikastaroa izan dugu urtarrilean, bi aste guztira!! Horrez gainera, gabonetako oporrak hartu aurretik La Salleko ikasle batzuk Olentzeroren etxea joan ziren hari bisita egitera, baina ez pentsa, Olentzerok gure bisita hura itzuli zigun eta gure ikastetxera etorri zen ume guztien gozamenerako!

Horrez gainera, La Salleko 6. mailako ikasleek irabazi zuten Eroskik antolatuz "Jaiotza-lehiaketa".



ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxeko 5. eta 6. mailetako ikasleak jo eta ke ari dira; alde batetik odol emaileen ikastaroa egin dute eta bestetik, San Andres ikastetxeko ikasleek prestatutako antzerkia ikustera ere joan dira. Txikienak ere lan eta lan ari dira, planeten proiektua egiten. Hurrengo jai eta ospakizunak prestatzen dihardugu. Laster izango ditugu Ate Zabaliak eguna, Santa Ageda eta Aratosteak. Guk, aurren, Far West aukeratu dugu koko jantzeko.

URKIZUKO lehenengo zikloko ikasleak Coliseora joan dira "Pluk" filma ikustera. Hirugarren ziklokoak Lenitz-Gatzagan izan dira, Debarroak urtero antolatzen duen programaren barruan, eta Energia Tailerrak ere izan dituzte Lehen Hezkuntzako ikasleak.

Kaixo **JUAN ANTONIO MOGEL** Ikastolatik! Oporretatik bueltan denoi martxan hastea kostatzen zaigu. Nagusi nahiz txiki izan, denontzako hasiera zail samarra izaten da. Egoera horri aurre egiteko laneko lehenengo eguna era ludikoan igarotzen dugu, baina ez edozein modutan. Berezitasun handiena ekintza guztiak euskaran murgiltzeko balio zaizkigula. Mailaka jartzen ditugu umeak eta egunean zehar esparru edo markaturiko guneetatik pasatzen dira. Horrela era atsegina eta errazean sartzen dira euskaran. Saioak jolas, arte, ipuin, musika, informatika eta kirol munduan igarotzen dira. Beraz, ikastolaren eguneroko dinamikan eta geurea dugun hizkuntzan, ikasleak gustora eta erraz sartzen dira.




DENBORAPASAK

Iker Perez

O	L	H	F	I	B	D	H	J
B	I	H	O	T	Z	A	A	L
Z	I	A	I	N	A	Z	I	D
A	I	I	U	E	T	V	X	K
K	N	K	G	R	T	J	T	U
S	R	B	A	V	I	X	E	B
E	A	H	J	K	T	A	E	M
N	H	W	L	E	H	O	I	A

ETXEA
 BIHOTZA
 LEHOIA
 HARTZA
 NESKA

Aurkitu letra-zorran hitz hauek:



7 DESBERDINTASUN



Egileak: Jon eta Garazi

Aurrerita hemen zazpi desberdintasuna.



Egileak: Jon eta Garazi

Aratosteetan denok koko-ja

Koko-jantzia prest duzue? Eta zeren zain zaudete bada? Gainean ditugu-eta aurtengo Aratosteak! Bakeroak, marigoringoak, printzesak, pailazoak, supermanak... denetarik ikusiko dugu laster gure herriko kaleetan. Aspertzeko denborarik ez duzue izango behintzat.

Eta hain jai alaitsuetarako motorrak berotzen joateko, urtarrilaren 18an, barixakua, ...eta kitto! Euskara Elkarteak koko-jantzi tailerra antolatu zuen Gurasoak Berbetan egitasmoko gurasoen seme-alabentzat. Egitasmo horretan euskaraz

berba egiteko erraztasuna lortu nahi duten gurasoek hartzen dute parte, guraso euskaldunekin batera. Astean behin elkartzen dira euskaraz berba egiteko. Barixakuko saioan koko-jantzi ederrak egin zituzten, oso erraz gainera. Zabor-poltsak, kartulinak, margoak, artaziak... erabiliz mozerro politak egin zituzten, primeran pasatzearekin batera!

Eta hemen duzue datozen Aratosteetan gure herrian zer egongo den:

Otsailak 2, zapatua: Kezka dantza taldeak koko-eskea egingo du Arrate-balleko



antzera!

baserri inguruetan eta arratsaldean kokodantzak egingo dituzte herrian bertan.

Otsailak 7, Eguen Zuri: 15.30etatik aurrera ikastetxeetako kalejirak eta desfileak. 17.00etan erraldoi eta buruhaundien kalejira irtengo da Urkizutik Untzagaraino. Dantzaldia Liskerrekin karpan, eta beldurrezko kareta eta makilajea eta osagarriak egiteko tailerra Astixarekin.

Otsailak 8, barixakua: Kaldereroen kalejira Urkizutik 20.00etan eta 21.00etan Kaldereroen abestiak eta dantzak eta aratoste-pregoa Karpan.

Otsailak 9, zapatua: Untzagako kar-

pan animazioa 12.00etatik aurrera eta 18.00etan kalejira Ustekabe fanfarrearekin. 18.30etatik 20.00etara umeentzako berbera karpan Kresala taldearekin. 17.00etan mozorro-lehiaketa Galiziako Etxean.

Otsailak 10, domeka: 17.00etatik aurrera Play-back lehiaketa karpan LH 5-6 mailakoentzat eta ondoren diskoteka DJ Arnorekin.

Otsailak 12, martitzena: 17.00etatik aurrera umeentzako jolasak karpan Astixarekin eta 18.30etan Sardinaren Entieru Txikia. Ordu berean, umeentzako diskoteka DJ Arnorekin.



Nagusixen eta umien artian desberdintasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu, baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

Gustatzen jatzuz Aratostiak? Koko janzten zara?

LEIRE GARCIA, 8 URTE

Bai, asko gustatzen jataz aratostiak, bereziki koko jantzia. Halanda be, oindiok ez dot erabagi aurten zein izango dan jantziko dotena. Etxian be koko jantzia gustatzen jata, urte osuan. Eta Eguen Zuri egunian eta zapatuan lagunekin kalia ibiltzia eta Play back-era jua eta DJarekin dantza egittia asko gustatzen jata.

MARTIN VILLALON, 8 URTE

Pixka bat gustatzen jataz; dantza egittia asko gustatzen jata eta aratostietan asko egitten dot hori. Baiña aurpegixa margotzia ez jata bape gustatzen eta hori ez egitten saiatzen naiz. Oso ondo pasatzen dot aratostietan, asko aprobetxatzen dot dantza egitteko.

MANOLI NAVARRO, 41 URTE

Umia nintzarian izaten ziran aratostiak, baiña ni ez naiz iñoiz izan zalia. Eskolan jai egun moduan ospatzen gendualako koko jazten nintzan eta urtero esaten dot oin be egingo dotela, baiña azkenian ez dot iñoiz egiñ.

MAIKA ALVAREZ, 41 URTE

Beti gustau jata koko jantzia eta aratostietan parte hartzia. Txikittan kuadrillarekin urtero aldatzen genduan koko jantzixa. Gero denpora baten albo batera laga genduan, baiña umiak eukitziarekin batera ohitturia berreskuratu eta gaur egun famelixa osua koko janzten gara. Asko disfrutatzen dot aratostietan.





Haur-gizentasuna nola ekidin

Gaur egungo gizartean, haur-loditasuna da gaitzik nagusienetakoa. Elikadurarekin erlazionatutako gaitzen artean gurasooi bereziki arduratzen gaituen gaia da, izan ere ondorio fisiko (bihotz gaixotasunak, diabetesa...) zein psikologiko larriak ekar ditzake.

3 eta 12 urte bitarteko umeen %20k gehiegizko pisua du, eta horrek neurriak hartzera eramán beharko gintuen. Ondoren haur-loditasuna ekiditeko jarraibide erabilgarriak aurkezten dizkizuegu:

Elikadura ohitura osasungarriak hartu:

- Bost otordu egin: gosaria, hamarretakoa, bazkaria, askaria eta afaria.
- Ez dago elikagai "txarrik", baizik eta okerreko maiztasunak. Elikagaiaren kantitatea umearen adin eta garapenera egokitu.
- Fruta eta barazkiak egunero.
- 3-4 esneki egunero.
- Oliba olio erabili.
- Karbohidrato integralak erabili. Ogia, pasta, lekale eta zerealek umeek behar dituzten karbohidratoak ematen dizkiete. Produktu integralak erosten badituzu fibra gehituko diezu.
- Ondo hidratatzea ezinbestekoa da. Edateko beti ura. Freskagarriak kaloria hutsak dira, une puntaletan bakarrik eta kafeina gabekoak.

Ariketa fisikoa, elikadura orekatuarekin batera, haur-loditasuna ekiditeko oinarria da. Adituek egunero 20 minutuko ariketa fisiko moderatu edo handia behar dela diote. Umeen kasuan jolasaren bitartez lortzea erraza da; saltoan, baloiarekin, korrika... Umeek kalean jolastea.

Telebista, bideo-joko edo ordenadore aurrean pasatzen duten denbora kontrolatu.

Eredua eman. Guk egiten dugunak esaten diegunak baino askoz ere gehiago eragiten du, geroz elikatzen eta kirola egiten ikusten bagaituzte eurek ere hori egingo dute.

Familia giroan mahaiaren inguruan. Gutxienez eguneko bazkarietako bat familia giroan egitea gomendatzen da, zer jaten duten eta nola jaten duten kontrolatzeaz gain familia-komunikazioa sustatzeko ere oso baliagarria da.





Margoentzako KUTXA

ZER BEHAR DUGU?

- ✂ ZAPATA-KUTXA BAT (AHAL DELA UMEEN ZAPATENA, TXIKIAGOAK DIRA-ETA)
- ✂ MARGO AKRILIKOAK
- ✂ KALKOMANIAK APAINTEZKO
- ✂ TELGOPOR ZATI BAT (IGURTZITZERAKOAN BOLITA ZURIAK ATERATZEN DUEN MATERIALA)
- ✂ KOLORETAKO MARGOAK



Zenbat margo pilatzen zaizkigun etxean! Estutxeetan bueltaka izaten ditugu, tapoirik gabe, tintarik gabe... Ba hori gerta ez dadin, hona hemen margoak gordetzeko kutxa bat egiteko argibideak.

Pausoak:

- 1.- Kutxaren oinarria eta tapa margotu nahi duzun kolorearekin. Kolore bakarra edo asko izan daitezke, zuk nahi duzuna, eta sikatzen utzi.
- 2.- Kalkomaniak itsatsi beheko partearen inguruan margoa sikatu eta gero.
- 3.- Hartu kutxaren tapa eta egizkiozu zuloak, gero bertan margoak sartzeko.
- 4.- Kutxaren beheko aldearen neurri berberarekin moztu telgopor zati bat eta sartu eta itsatsi kutxaren barrualdean. Taparekin itxi eta sartu margoak!





etxeko SUKALDARIA

FRUTA-GELATINA

Gabonetako jaiak pasatu eta gero, gure gorputzak eskertuko du postre arin bat, eta horretarako zer hobeto fruta baino? Hona hemen errezeta erraz bat, hori bai heldu baten laguntzarekin egin.

OSAGIAK

- ✓ Marrubi-gelatina pakete bat (2 sobre)
- ✓ Sagar- edo kiwi-gelatina pakete bat (2 sobre)
- ✓ Gelatina-neutro pakete bat (12 lamina)
- ✓ Esne kondentsatu bote handi bat



NOLA EGIN

1.- Egin marrubi- eta sagar- edo kiwi-gelatinak jarraibideetan esaten den bezala, gutxi gorabehera 21 x 15 cm-ko molde edo tuperretan, eta hoztuta daudenean karratutxoetan moztu. Gorde.

2.- Bitartean esne kondentsatuaren gelatina egingo dugu. Horretarako molde batean jarri gelatina berdea eta gorria. Gelatina neutroko 12 laminak ur hotzetan sartu 5 minutu. Ur baso bat irakiten jarri katilu zabal batean eta gehitu horra gelatina-laminak. Nahastu erabat desegin arte. Horri esne kondentsatua gehitu eta ondo nahastu. Utzi hozten 15 bat minutu.

3.- Esne kondentsatuaren gelatina isuri aurrez koloretako gelatina jarri dugun moldean eta utzi hozten hozkailuan hiru bat ordu.



INTERNETEN...

ARIES

Gabonetako porrak oraindik buruan? Hartu lasai, Aste Santukoak laster etorriko dira-eta. Hasi aratosteetan pentsatzen lehenengo.

TAURUS

Aldaz gora egin zaizu eskolara buelta, ezta? Hartu lasai, datozen egunotan berriro sentiituko zara sasoi betean. Animo!

GEMINIS

Datozen asteotan 6 zenbakiak zortea ekarriko dizu, zure kolorea horia izango da eta zorteko animalia zaldia zuretzat.

CANCER

Egin berba lagun horrekin. Apur bat minduta dago eta ondo egingo dio zurekin hitz egitea. Gogoratu laguntxoak zaindu egin behar direla.

LEO

Eskolan oso ondo zabilta baina ez zaitez larregi erlaxatu. Gogoan izan beti ikas dezakezula gehiago eta gauzak hobeto egin ditzazkezula.

VIRGO

Zirikatzaille bikaina zara benetan! Baina kontuz ibili, ingurukoren bat aspertuko duzu-eta. Zaindu eztarria.

LIBRA

Hartu liburu edo ipuin bat eta irakurri ezazu! Badakizu zenbat abendura desberdin bizi ditzakezu liburu batekin?

SCORPIUS

Egun osoan telefonoan zintzilik! Badakizu gero hori ordaindu egin behar dela, ezta? Eta zeinek ematen dizu dirua? Pentsatu apur bat.

SAGITARIUS

Gezurra badirudi ere gain-gainean ditugu aratosteak. Eta oraindik ez duzu pentsatu zertaz mozzorrotu? Ba mugitu ipurdia, gero azken momentuko estuasunak datoz-eta.

CAPRICORNIUS

Astuna izaten badakizu gero, eh? Hainbeste bider ez errepikatu gauzak, behin esanda nahikoa da-eta! Batenbat nekatu duzu honez gero.

ACUARIUS

Urte berrikin batera zenbat gauza nahi dituzun egin! Zerrenda motzagoa egin ezazu, dena betetzea zaila egingo zaizu bestela.

PISCIS

Gabonetako enpatxorik ez duzu izan ala? Oraindik gozokiak jateko gogoia duzula gainera? Zaindu zaitez apur bat, tripako mina izan nahi ez baduzu behintzat.

The screenshot shows the Astixa website interface. At the top, there's a navigation bar with 'Sarrera', 'Astixa', 'Programak', 'Indianokua', and 'Albistegia'. The main content area features a large image of a child in a costume. Below it, there's a section titled 'Gabonetako Haur Parkea 26an irekiko da' with two sub-sections: 'Gabonetako Haur Parkea' and 'Oientzeroren kalejira'. To the right, there's a 'BERRIENAK' section with details about the 'Gabonetako Haur Parkea' opening on December 26th, including opening hours and location.

Astixa.com

Web orrialde honetan Eibarko Astixa elkartearen inguruko informazioa jasoko duzue. Astixa 1991. urtean jaio zen Eibarren eta herriko haur eta gaztetxoentzako aisialdi-programa zabala eskaintzen du: ikastaroak eta tailerrak, Indianokua gaztelekua, ludoteka, udalekuak, jaiak... azken finean urte osoan zehar primeran pasatzeko aukera!

www.euskal-herria.org


Web orri honetan Euskal Herriari buruzko informazio zabala aurkituko duzue: mendiak (garaiera, abiapuntuak, zein eratako mendia den...), herriak, leizeak, eraikin historikoak, botanika... Guztia mapa zoragarriekin lagunduta. Klik soil batekin gauza interesgarri asko aurkituko dituzue, asko eta asko ezagutzen ez zenituztenak. Probatu, probatu, eta ikusiko duzue zein ondo pasako duzuen!

The screenshot shows the Euskal Herria website interface. It features a large map of the Basque Country with various locations marked. Below the map, there's a list of locations and their details, including 'Argibel Zorionak', 'Argibel Aizkamen lortu dut.', 'Siguetako Naga', 'Behortegi', 'Oizki', 'Elorrio', and 'Elorrio - Santamariñazar'. The website also has a sidebar with navigation options like 'Mendiak', 'Botanika', 'Eraikin historikoak', 'Herriak', 'Lizeak', 'Salonerak historio', and 'Nabigazioa'.



EGUN BAT PETRE ROMANESCUREN BIZITZAN

Petre Romanescuri idazlana egiteko agindu dio andereño Itsasok, bere egun bat kontatuz. Petreri, baina, ez zaio idaztea gustatzen, bai ordea zinema. Hortaz, gurasoek oparitutako bideo-kamararekin hasiko da bere bizitza grabatzen: etxea, familia, auzoa... eta batez ere mendian egingo duten egun pasa.



LURRAREN AZPIAN

Zatoz Luken eta Learekin lur aspira! Primeran ibiliko zarete, eta elkarrekin deskubrituko dituzue hango misterioak. Ipuin honek testu errazak biltzeaz gain, jolas egiteko denborapasak ere baditu.



OSTIRALETAKO OPILA

Gaur ikasturte berria hasi da. Gaur mutiko berri bat etorri da eskolara. Simon du izena. Gelan hemeretzi ikasle daude. Denak binaka eseri dira, baina Simon bakarrik geratu da eta bakarrik eseri da, bakarti eta isil.



MILKI. HARROPUTZAK ETA POXPOLINAK

Milki eta Milla neba-arrebenzat txakur-ikastetxera joatea ez da inolako txantxa. Zuzendari andreak lehen egunean jakinarazi die arauak ez errespetatuz gero berehala kaleratuko dituela. Milkik harroputz baten erasoja jasango du, eta Millak Hiru Erreginen isekak; klub snob batean dabiltzan hiru txakurtxo emerena, alegia.



ABBADIAREN SEKRETUA

Izan dira izarzale asko nire aurretik. Etorriko ahal dira gehiago ondoren! Alar dut izena eta izarrak maite ditut. Haien bakea eta argia. Haien xuxurla isila. Hendaiarra naiz. Beharbada horrexegatik dauka halako pisua nire ametsetan Antton Abbadiak. Huraxe dut, izarzale guztien artetik, kuttunen.



IRENEREN UNIBERTSOA

Ireneren unibertsoan, beste lagun askorenean bezalaxe, maitagarriak bizi dira, eta ikusgai bihurtu nahi ditugu ipuin honetan. Ahalmen handiak dituzte, eta egunerokoa magiaz betetzeko gaitasuna ere bai. Murgil zaitetz liburu honetan eta gertutik biziko duzu hori guztia.

ILARGIAREN SOINEKOA

ehin batean Ilargiak, amaren-gana hurbildu eta hauxe esan zion:

B -" Aizu, amatxo, soineko bat eduki nahi dut. Lurreko biztanleek erabiltzen dituztenak bezalako

soineko bat eduki nahi dut".

-" Ongi da, alabatxo –erantzun zion amak- Zoaz jostunarengana eta esaiozu neurriak hartzeko".

Joan zen, bada, Ilargia jostunaren etxera.

Hark neurriak hartu zizkion eta handik bost egunera itzultzeko eskatu zion. Bost egun igarota, han joan zen Ilargia jostunaren etxera lasterka bizian. Soinekoa jantzen hasi zen baina ezin: laburregi eta estuegi zeukan.

-" Dirudienez erratu egin naiz", pentsatu zuen jostunak bere arterako, eta neurriak hartu zizkion berriro.

-" Itzuli bost egun barru" –esan zion Ilargiari.

Ilargia bost egun geroago itzuli zen, soinekoa jantzi eta berriro gauza bera gertatu zitzaion: laburregi eta estuegi zeukan. Jostunak berriz ere neurriak hartu, handik bost egunera itzultzeko eskatu eta, beste barik, lanarik ekin zion. Bost egun haiek igaro ziren. Jostunak soinekoa amaitu zuen baina Ilargia bere etxera sartzen ikusi zuenean... ez zuen jantzi beharrik izan: bazekien ez zuela sekula ondo edukiko, une hartan Ilargia gazta bezain biribila baitzen.

Jostuna etsita zegoen erabat:

-" Ezin dizut soinekorik egin, Ilargi, orain laurdena, gero erdia eta ondoren osoa zaudelako. Neurri asko hartu arren inoiz ez duzu soinekoa ondo edukiko".

Horrexegatik geratu zen Ilargia soinekorik gabe eta horrexegatik dago oraindik ere biluzik.

Dena dela Ilargia, soinekoarekin edo gabe, beti eder.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

LAMIAREN KONDAIRA

Jeinu honek emakume eder baten itxura du gorputzaren erditik gora, eta hankak oiloarenak, ahatearenak, nahiz ahuntzarenak bezalakoak ditu. Aldiz, kostaldean, gorputz erditik behera arrain tankera hartzen dute. Lamien zereginen artean honako hauek zeuden: artilea haritu; trikuharriak, etxeak eta elizak eraiki; eta arropak garbitu. Baina asko atsegin du urrezko orrazi batekin bere adats ederra orraztea, erreka bazter edo urmahel batean. Haitzuloetan edo erreka putzuetan nahiz urmaeletan bizi ohi da.

Anboto eta Arangio artean artaldearekin egoten zen artzain bati maiz agertzen omen zitzaizkion Lamiak, eta oso ongi pasatzen omen zuen hark, dantzan ibiltzen baitzuten airean. Artzaina gustura zebilen neska gazte eder haiekin, berak ez baitzekien Lamiak zirela. Batekin harreman sendagoa egin zuen, eta etxeraino ere laguntzen omen zion. Behin batean, eraztun bat operatu zion Lamiak artzainari, eta ezkontzeko hitza eman zioten elkarri. Mutilak kontatu zion amari, eta amak, kezkatuta, herriko apaizarengana joateko eskatu zion semeari. Elizgizonak, mesfidati, emaztegaiari oinak behatzeko agindu zion. Artzainak horrela egin zuen eta bere hankak ikustean ahatearenak bezalakoak zirela ohartu zen. Orduan, eraztuna atera nahi izan zuen lamiari itzultzeko; baina ahaleginak egin arren, ezin izan zuen atera, eta atzamarra moztu behar izan zuen. Eraztuna atzamar eta guzti itzuli zion lamiari, eta etxera joan zen. Sendatu zuen atzamarra, eta ohean sartu zen. Lamia haserre bizian

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

gelditu zen,
eta mutila ez
omen zen
gehiago
esnatu.



LAMIA



zu margolari!